

# CANVAS METODOA

## **1. BALOREZKO PROPOSAMENA**

CANVAS metodoaren lehenengo pieza da Balorezko Proposamena. Gure proiektua balore kualitatiboan datza, hau da, bezeroak produktu edo zerbitzu jakin baten inguruan duen ikuspegiarekin dago lotuta. Kasu horretan, diseinua edota bezeroaren esperientzia bezalako faktoreak hartzen dira kontutan gure produktua erabiltzeko orduan.

Gure *pultsera bereziak* beste lehiakide posibleetatik bereizteko dituen ezaugarri desberdinak hauek dira:

- ***Prebentzio maila handiagotzea:*** horrela pultseren bitartez, jakin ahal izango dute lurrikara arriskuan daudela, beraz, prebentzio neurriak ezarrita, populazioak segurtasuna edukiko du.
- ***Bizi-asegurua eskaintzea:*** bizitza luzatzeko herramienta izango da.
- ***Prebentzio sistema eraginkorragoak izatea:*** honek lagunduko du prebentzio eta ebakuazio protokoloa osatzen.
- ***Lasaitasuna eta segurtasuna:*** egoera katastrofiko baten aurrean hiritarrei lasaitasun eta segurtasuna eskainiko zaie.

**Horrez gain, zer eskaini dezakegu gure bezeroei gure proiektuaren bitartez?**

Gure proiektua burutzean hainbat onura ekarriko dizkiegu produktu hau jasotzen duten erosleei, gehienbat Gobernuari (Sektore Publikoari), hauek izango bait dira gure bezero nagusiak.